

KUTXABANK PLUS 4 PENTSIO-PLANAREN ZEHAZTAPENAK

AURKIBIDEA

1.-ARTIKULUA-	PLANAREN ERAKETA	2
2.-ARTIKULUA-	MODALITATEA ETA MOTA	2
3.-ARTIKULUA-	EREMU PERTSONALA ETA IRAUPENA	2
4.-ARTIKULUA-	FINANTZATZE-SISTEMA	3
5.-ARTIKULUA-	PENTSIO-FONDO BATERA ATXIKITZEA	3
6.-ARTIKULUA-	EKARPENAK ETA MUGAK. EKARPENAK ESKURAGARRI EZ IZATEA	4
7.-ARTIKULUA-	ESKUBIDE FINKATUAK	5
8.-ARTIKULUA-	KONTINGENTZIAK ETA PRESTAZIOAK	5
9.-ARTIKULUA-	ESKUBIDE FINKATUEN LIKIDENZIA ERAGITEN DUTEN SALBUESPENAK	9
10.-ARTIKULUA-	PLANA ZUZENTZEKO ZEREGINAK ETA ERANTZUKIZUNAK	9
11.-ARTIKULUA-	PARTAIDE ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	11
12.-ARTIKULUA-	PARTAIDE ETA ONURADUNEI EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA	13
13.-ARTIKULUA-	ESKUBIDEEN MOBILIZAZIOA	15
14.-ARTIKULUA-	PARTAIDE ETA ONURADUNEN ALTAK ETA BAJAK	16
15.-ARTIKULUA-	PLANAREN AMAIERA ETA LIKIDAZIOA	17
16.-ARTIKULUA-	DATU PERTSONALEN BABESA	18
17.-ARTIKULUA-	PARTAIDEAREN DEFENDATZAILEA	19
18.-ARTIKULUA-	PLANARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK ALDATZEA	19

1. ARTIKULUA. PLANAREN ERAKETA

KUTXABANK PLUS 4 PENTSIIO-PLANA sustatzen duen erakundea KUTXABANK SA (aurrerantzean KUTXABANK edo Sustatzailea) da, eta honako lege-dekretu hauek babesten dute: azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak –hau da, Pentsio Plan eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina onartzen duenak (1/2002 LEG)–, horri dagokion Araudiak –otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuan (304/2004 ED) araututakoak–, eta horiei erasaten dieten xedapen osagarriek eta bat datozenek, bai eta etorkizunean horiek aldatu edo garatuko dituztenek ere.

Espezifikazio hauek Planaren, Sustatzailearen, Partaideen eta Onuradunen arteko harremanak arautzen dituzte.

2. ARTIKULUA. MODALITATEA ETA MOTA

KUTXABANK PLUS 4 PENTSIIO-PLANA banakako sistemaren modalitatean sartzen da, ekarpen definituko Pentsio Planen klasean.

3. ARTIKULUA. EREMU PERTSONALA ETA IRAUPENA

1) Hona hemen Pentsio Planaren elementu pertsonalak:

- a) Planaren Sustatzailea: KUTXABANK SA
- b) Partaideak: planaren sorreraren onura zuzentzen zaien eta, ekarpenak egin edo ez, atxikitzeko borondatea adierazi duten pertsona fisiko guztiak hartuko dira hartakotzat (aurrerantzean, Partaideak/k).
- c) Gabealdian dauden Partaideak: ekarpenak egiteari utzi baina Planean dituzten eskubide kontsolidatuei eusten dieten partaideak hartzen dira hartakotzat (aurrerantzean, Gabealdian dauden Partaideak/k).
- d) Onuradunak: prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoak dira, ordura arte partaide izan nahiz ez (aurrerantzean, Onuradunak/k).

Partaidearen edo, kasua bada, Onuradunaren heriotza gertatuz gero, berariaz izendatutako Onuradunek izango dute dagokien prestazioa jasotzeko lehentasunezko eskubidea, beste edozein pertsonaren aurretik.

Izendatutako Onuradunaren eskubidea Partaide edo Onuraduna hiltzen den unean kotsolidatuko da.

- 2) Mugagabea da Pentsio Planaren iraupena.

4. ARTIKULUA. FINANTZATZE-SISTEMA

KUTXABANK PLUS 4 PENTSIO-PLANA banakako kapitalizazioaren sistema finantzario eta aktuarialaren bitartez eratzen da; horrela, ekarpenak, mobilizazioak eta inbertsio bidez lortutako etekinak –egotz dakizkiekeen gastuak kenduta– izango dira ordaindu beharreko prestazio ekonomikoak edo zenbatekoak, kapitalizazio-prozesuaren ondoriozko kontingentzia edo salbuespenezko likidezia-kasutik aurrera zehaztuko diren likidezia-kasu berezietan. Hori guztia, Plan hau atxikita dagoen Pentsio Funtzaren Funtzionamendu Arauek ezarritako baldintzak betez betiere, bai eta une oro aplika daitekeen araudia betez ere.

Pentsio Planak ez du gutxieneko interes-tasarik bermatzen.

5. ARTIKULUA. PENTSIO-FONDO BATERA ATXIKITZEA

KUTXABANK PLUS 4 PENTSIO-PLANA KUTXABANK PLUS 4 PENTSIO-FONDOAREN barnean dago.

Ekarpenak eta, halakorik bada, ondasunak eta eskubideak Pentsio Fondoan Pentsio Planari buruz dagoen posizio-kontuan bilduko dira.

Kontu horretan zordunduko dira Pentsio Planaren exekuziotik sortutako prestazioei eta salbuespenezko likidezia-kasuei erantzuteko zenbatekoak.

6. ARTIKULUA. EKARPENAK ETA MUGAK. EKARPENAK ESKURAGARRI EZ IZATEA

- 1) Planaren atxikipen-buletina egitean, Partaideak bere ekarpen erregularren zenbatekoa eta haien aldizkakotasuna finkatu ahal izango ditu. Sustatzaileak ekarpenaren gutxieneko zenbatekoa ezarri ahal izango du, egokia iruditzen bazaio.

Ekarpen plana Partaidearen nahierara aldatu daiteke, baita aparteko ekarpenak eginez ere, legeak zehaztutako mugen barruan betiere.

Partaideek baino ezin egin ditzakete ekarpenak, legeriak ekarpenak hirugarrengo beste norbaitek egitea ahalbidetzen duen kasuetan izan ezik.

- 2) Partaideak aldi batez edo behin betiko eten ahal izango ditu Pentsio Planerako ekarpenak. Hori gertatzen denean, Etenaldian dagoen Partaidetzat hartuko da. Etenaldian dagoen Partaideak partaide-izaera mantenduko du, dituen eskubide kontsolidatuak gordeko ditu, eta haien etekinen eta kudeaketa-gastuen partaide izango da. Etenaldian dagoen Partaideak edozein unetan has daiteke berriro ere ekarpenak egiten.
- 3) Partaideak Pentsio Planetara egiten dituen ekarpenen eta beste ekarpen konputagarrien baturak ezergatik ere ezin du egutegiko urte bakoitzerako lege xedatutako muga gainditu. Era berean, Partaideak Pentsio Planetara egiten dituen ekarpenak prestazioekiko eta salbuespenezko likidezia-egoeretako eskubide kontsolidatuen eskurapenarekiko bateraezintasunei buruz arau aplikagarrietan aurreikusita dagoen erregimenaren eraginpean daude.

Muga horien gainetik soberakinak legeetan xedatutako muga-eguna baino lehen atera beharko dira.

Partaidearen eskubide finkatuaren kargura soberan emandako zenbatekoa itzuliko da. Gehiegizko ekarpenari egotz dakiokeen errentagarritasunak, positiboa izanez gero, pentsio-fondoaren ondarea handituko du, eta, negatiboa izanez gero, partaidearen kontura izango da.

- 4) Ekarpeneak, mobilizazioek eta Planaren kapitalizazio erregimenak eragin dituzten eskubide ekonomikoak erabiltezinak izango dira, eta bakarrik bihurtu ahal izango dira diru beste Pentsio Plan edo gizarte aurreikuspenetarako beste tresna batean edo batzuetan sartzeko nahi denean eta kontingentzia sortzen duen gertaera jazotzen denean, bai eta Espezifikazio hauetan adierazten diren beste salbuespenezko likidezia kasuetan ere.

7. ARTIKULUA. ESKUBIDE FINKATUAK

Planeko Partaideen eskubide finkatuak, kapitalizazio-fondotik beraiei dagokien kuota-zatiak osatzen ditu. Kuota-zati hori zuzeneko eta inputatutako ekarpenen, mobilizazioen eta

inbertitutako baliabideek sortutako etekinen batura da, jazotako galerak eta gastuak kenduta.

Onuradun baten aldeko prestazioa eragiten duen gertaera jazotzean, prestazio horren zenbatekoa Partaideen eskubide finkatuari egokitu beharko zaio.

Eskubide finkatuak ezingo dira izan enbargo baten edo traba judizial nahiz administratibo baten xedea, prestaziorako eskubidea gauzatzen den unera arte edo Zehaztapen hauek onartutako salbuespenezko likidezia-kasuetan gauzatzen diren arte. Pentsio-plan baten partaidearen prestazioetarako eskubidea enbargo edo traba judizial nahiz administratibo baten xedea denean, baliozkoa eta eraginkorra izango da, baina ez da gauzatuko prestaziorako eskubidea kausatu edo beste edozein salbuespenezko likidezia-kasu gertatu arte, une horretan indarrean dagoen legediaren arabera. Inguruabar horiek gertatzean, prestazioei dagozkien Fondoak dagokionari traspasatzea aginduko du Erakunde Kudeatzaileak, enbargo-agindua betez.

8. ARTIKULUA. KONTINGENTZIAK ETA PRESTAZIOAK

1) Honako kontingentzia hauek estaltzen ditu Pentsio Planak:

a) Partaidearen erretiroa.

Erretiroaren kontingentzia zehazteko, dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean ezarritakoari jarraituko zaio.

Beraz, erretiro-kontingentzia gertatuko da Partaideak dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean erretiroa hartzen duenean, bai ohiko adinean, bai erretiro aurreratua edo atzeratua hartzean. Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera erretiro partzialeko egoeran dagoen pertsonak aukeran izango du erretiro osorako ekarpenak egiten jarraitzea edo erretiro partzialeko prestazioa jasotzeko izapideak egitea.

Partaideak erretiro-egoerara heltzerik ez badu, une bakoitzean indarrean dauden araudietan xedatutako erretiro-adintzat hartzen denera iristen denetik aurrera ulertuko da kontingentzia gertatutakotzat, Partaideak lana edo lanbide-jarduera utzi edo amaitu duenean, betiere partaidea Gizarte Segurantzako ezein

erregimenetan kotizatzen ari ez bada erretiro-kontingentziarako eta unean-unean aplikagarria den araudian xedatutako gainerako baldintzak betetzen baditu.

Horrez gain, araudiak une bakoitzean xedatzen dituen inguruabarrak elkartzen direnean jaso ahal izango da aurretiaz "erretiroari dagokion prestazioa".

b) Partaidearen edo Onuradunaren heriotza.

Alarguntza- edo zurtasun-prestazioetarako eskubidea, edo izendatutako beste pertsona edo jaraunse batzuen aldeko eskubidea sortu ahal izango du.

Minusbaliatuen erregimen berezira atxikitako Partaideen heriotza gertatuz gero, beraren aldeko diru-emateak egiteko legitimatutako senitartekoek egin dituzten ekarpenek alarguntza- edo zurtasun-prestazioak edo ekarpenok egin dituztenen aldeko prestazioak baizik ez ditzakete sor, eta ekarpenen proportzioan betiere.

c) Partaidearen ohiko lanbiderako erabateko ezintasun iraunkorra, lan mota guztietarako ezintasun absolutua eta baliaezintasun handia.

Egoera horiek dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

d) Partaidearen mendekotasun larria edo mendekotasun handia, unean-unean indarrean den eta aplikagarria den legediak xedatzen duenaren arabera.

e) Minusbaliatuen erregimen berezira atxikitako Partaideen kasuan, honako kontingentzia hauek ere egongo dira estalita:

- Partaidearen ezintasun-maila larriagotzea betirako ezgai utzi arte, unean-unean indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera.
- Erretiroa hartzea desgaituaren ezkontideak edo, hala behar bada, arautegian xedatutakoaren arabera, desgaituarekiko ahaidetasun-maila duen senideetako batek, baldin eta desgaitua haien mende badago, edo tutoretzapean edo babespean duen pertsonak.
- Minusbaliatuaren ezkontidea edo, bidezkoa bada, minusbaliatuarekiko arautegian xedatutako ahaidetasun-maila duten senideetako bat hiltzea,

euren mendean badago edo tutoretzapean edo babespean duen pertsonarena.

- Minusbaliatuaren edo bere ezkontidearen edo arautegian xedatutako ahaidetasun-maila duten senideetako baten mendekotasuna eta ezgaitasuna larria edo handia, euren mendean badago edo tutoretzapean edo babespean duen pertsonarena.

f) Une bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera, beste kontingentzia batzuk, Sustatzaileak hartakotzat onartuak baldin baditu.

2) Pentsio Planaren Onuradunei Planak estaltzen duen kontingentzia bat galtzearen ondorioz dagokien eskubide ekonomikoari esaten zaio prestazio. Prestazioak arautegi aplikagarrian ekarpenekiko bateraezintasunei buruz ezarrita dagoen erregimenaren eraginpean daude.

Espezifikazio hauetan aurreikusi bezala, Onuradunak edo haren legezko ordezkariak prestazioa eskatu ahal izango dio Sustatzaileari, merkaturatzaileari edo Erakunde Kudeatzaileari.

Aipatutako eskaeran, Onuradunak edo haren legezko ordezkariak prestazioa kobratzeko aukeratutako modua adieraziko du, kasua bada, eta dagokion dokumentazio egiaztatagarria aurkeztuko du, Zehaztapan hauetan ezarritakoari jarraiki.

Era berean, eskubide finkatuen kobratze partzialak egiten direnean, eskaeran adierazi beharko da ea jaso nahi diren eskubideak 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren egindako ekarpenei dagozkien, horrelakorik egotekotan.

Aurkeztutako dokumentuekin espediente bat eratuko da, Sustatzaileak onartu beharko duena. Azken eginkizun hori Erakunde Kudeatzailearen esku utz daiteke.

Pentsio Planari dagokion prestazioa hainbat modutan eskuratu daiteke: kapital bakarrean, errenta edo modu mistoan, berehala edo gerora, modu iraunkor edo aldakorrean, Partaideak aldeztetik eskatuta zehaztutako erreferentziazko indize edo parametro baten arabera, ziurtatua edo ziurtatu gabe, edo aurreko guztiez bestelako modu batez, maiztasun erregularrik gabe, Partaideak hala aukeratuta indarrean dagoen legediak ematen dituen aukeren artetik.

Prestazio ekonomikoaren ordainketa araudian aurreikusitako gutxienerako epean egin beharko da, eska daitezkeen izapide guztiak egiten diren eta erakunde kudeatzaileari beharrezkoa den dokumentazio guztia ematen zion egunetik zenbatzen hasita.

Prestazioak errenta moduan jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da egiaztatzea onuraduna ez dela hil, bai haren urteko bizi-agiria aurkeztuta bai horretarako egokia den beste sistema batez baliatuta.

Sustatzaileak, egoki iritziz gero, mugatu ahal izango ditu jaso beharreko prestazioen modua eta zenbatekoa.

Onuradunak ordaindu beharko ditu prestazioen ordainketak sorrarazten dituen gastu eta zerga guztiak.

9. ARTIKULUA. ESKUBIDE FINKATUEN LIKIDENZIA ERAGITEN DUTEN SALBUESPENAK

- 1) Salbuespen gisa eta legediak eta dagozkion eskakizunak betez gero betiere, honako kasu hauetan kobratu ahal izango dira esku-dirutan eskubide kontsolidatu guztiak nahiz batzuk:
 - a) Partaidearen edo ezkontidearen gaixotasun larria, edo haien lehen mailako aurreko edo ondorengo batena, edo tutoretza edo harrerako erregimenean Partaidearekin bizi den edo bere mende duen pertsonarena. Desgaitasuna duten pertsonen erregimen berezira atxikitako Partaideen kasuan, aplikatu daitezkeen araudian ezarritakoa beteko da.
 - b) Partaidearen iraupen luzeko langabezia, baita norberaren konturako langileen kasuan ere, baldin eta Gizarte Segurantzako erregimen bati atxikita egon badira. Desgaitasuna duten pertsonen erregimen berezira atxikitako Partaideen kasuan, aplikatu daitezkeen araudian ezarritakoa beteko da.
 - c) Likidezia eskatzen duten balizko beste kasu batzuetan, betiere une horretan indarrean dagoen legediari jarraituz eta Sustatzaileak hala onartuz gero.

Prestazioa eskuratzeko, Sustatzaileak eskatzen dituen aparteko likidezia-egoeraren egiaztapenak aurkeztu beharko dira, eta Sustatzaileak, frogak aztertu ondoren,

dagokiona ebatziko du. Azken eginkizun hori Erakunde Kudeatzailearen esku utz daiteke.

Era berean, eskubide finkatuen kobratze partzialak egiten direnean, eskaeran adierazi beharko da ea jaso nahi diren eskubideak 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren egindako ekarpenei dagozkien, horrelakorik egotekotan.

- 2) Eskubide kontsolidatuak gaixotasun larriaren edo iraupen luzeko langabeziaren zioz jasotzea bateraezina da Pentsio Planerako ekarpenak egitearekin, aipatutako inguruabar horiek dirauten bitartean, araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzei jarraituz.

Partaideak kontingentzia gertagarri guztietarako ekarpenak egiten hasteko aukera izango du berriro, eskubide finkatuak osorik jasotzen dituenean edo horien kobratzea eteten duenean, gerakina berariaz esleituta kontingentzia horietara.

10. ARTIKULUA. PLANA ZUZENTZEKO ZEREGINAK ETA ERANTZUKIZUNAK

- 1) Planaren funtzionamendua eta gauzatzea Sustatzaileak ikuskatuko ditu.
- 2) Ildo horretan, honako hauek dira Sustatzailearen zereginak:
 - a) Espezifikazio hauetan jasotako manuak, bereziki Partaideen eta Onuradunen eskubideei buruzkoak, eta aplikagarri diren arau orokorrak ikuskatu, bete eta betearaztea.
 - b) Planari buruzko Zehaztapenak berregiteko edo aldatzeko proposamenak aztertzea eta onartzea, araudi aplikagarrian ezarritako baldintzei jarraiki.
 - c) Plana atxikita dagoen Pentsio Fondoaren inbertsio politika orokorraren definizioan, kasua bada, Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordean dauzkan ordezkarien bidez parte hartzea.
 - d) Pentsio Plana beste Pentsio Fondo batean sartzeko erabakia hartzea, Planaren posizio-kontua aukeratutako Pentsio Fondo berrira lekualdatuz.

- e) Planaren egoera eta dinamika eta horren ikuskapena ziurtatu behar dituen aktuarioa edo aktuarioak eta, bidezkoa bada, profesional independenteak hautatzea.
- f) Pentsio Planari dagokionez, Partaideen eta Onuradunen interes kolektiboak auzibidez eta auzibidetik kanpo ordezkatzeta.
- g) Pentsio Fondoan Planari buruz dagoen posizio-kontuko saldoa Fondoaren finantza araubidearen baldintzetara egokitzen dela ikuskatzea.
- h) Pentsio Funtsaren Erakunde Kudeatzailearekin batera, jasotzen diren prestazio-, mobilizazio- eta likidezia-eskaerak onartzea. Azken eginkizun hori Erakunde Kudeatzailearen esku utz daiteke.
- i) Espezifikazio hauetan aurreikusita ez dauden egoeretan, eta bereziki arautegi aplikagarriak Sustatzailearen eskumenekotzat xedatzen dituen gaien gainean, proposamenak egitea eta, hala behar duenean, erabakitzea.
- j) Bere zereginak besteren esku uztea eta ahalordetzeak ematea.
- k) Plana atxikita dagoen Pentsio Fondoaren Kontrol Batzorderako bere ordezkariak izendatzea. Pentsio Fondoak finantza-erakunde berak sustatu dituen banakako sistemako Pentsio Plan bat edo gehiago hartzen dituzte, Funtsaren Kontrol Batzordeari eslelitutako funtzio eta erantzukizunak bereganatu ahal izango ditu.
- l) Partaidearen Defentsaria izendatzea.

11. ARTIKULUA. PARTAIDE ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- 1) Honako eskubide hauek dituzte Pentsio Planeko Partaide eta Onuradun guztiek:
 - a) Eskubide kontsolidatu eta/edo ekonomikoen titular izatea.
 - b) Bere ekarpen plana aldatzea edo etetea.
 - c) Bere eskubide kontsolidatu eta ekonomiko guztiak edo batzuk edo gizarte aurreikuspeneko beste tresna batzuk beste Plan batera mobilizatzea, araudi aplikagarrian ezarritako baldintzak betez, edo, bestela, estalitako kontingentzia

gertatzean edo likidezia sortzailatzat hartzen diren baldintzak betetzen badira, prestazio moduan kobratzea.

Onuradunaren eskubide ekonomikoak mobilizatu ahal izateko, bete egin behar dira prestazioaren berme- eta segurtatze-baldintzak oro.

- d) Planari buruzko Zehaztapenen edukia eta Plana atxikita dagoen Pentsio Fondoaren Funtzionamendu Arauak ezagutzea.
 - e) Espezifikazio hauetan eta araudi aplikagarrian aurreikusitako dokumentazioa eta informazioa jasotzea.
 - f) Berak eskatzen duen edozein informazio jasotzea, betiere horrek beste Partaide eta Onuradun batzuen egoeraren isilekotasunari erasotzen ez badio edo Planaren interesentzat kaltegarria ez bada.
 - g) Itundutako prestazioak, beroriek sorrarazten dituen gertakizuna jazotzean, hartu ahal izango dituen Onuraduna edo Onuradunak izendatzea eta aldatzea.
 - h) Merkaturatzaileari edo Erakunde Kudeatzaileari sortutako prestazio ekonomikoa eskatzea, prestazioaren kobrantzarako aukeratu den bidea adieraziz kasu bakoitzean.
 - i) Espezifikazio hauek eta une bakoitzean indarrean dagoen arautegiak aintzatesten dioten beste edozein.
- 2) Hona hemen Pentsio Planeko Partaide eta Onuradunen betebeharrak:
- a) Pentsio Plan betarako edo batzuetarako ekarpenak edo kuotak abonatzea, legez ezarritako mugaraino, Plan horien Sustatzailea edozein dela ere, eta prestazioa zehaztutako baldintzetan kobratzea.
 - b) Pentsio Planaren Sustatzaileak hartutako erabakiak betetzea.
 - c) Pentsio Planaren erregistroetan dauden datu pertsonalak eguneratzea. Horretarako, ezaugarri pertsonalei buruzko egiazko informazioa emango da.

- d) Eskubide kontsolidatuak eta/edo ekonomikoak beste gizarte aurreikuspenerako tresna batera edo batzuetara mobilizatzeko nahia aurretiaz eta beharreko epean komunikatzea, araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzei jarraiki betiere.
- e) Eskubideak jasotzeko eskabidearen ondoriozko kontingentzia edo likidezia-egoera beteko dela egiaztatze beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea.
- f) Espezifikazio hauek eta aplikagarria den legedian xedatutako eginbehar guztiak betetzea.

12. ARTIKULUA. PARTAIDE ETA ONURADUNEI EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA

Pentsio Planeko Partaideek eta Onuradunek gutxienez honako informazio eta dokumentazio hau jasotzeko eskubidea dute, une bakoitzean arau aplikagarriek xedatu dezaketena baztertu gabe:

1. Erakunde Kudeatzaileak idatzi eta argitaratu beharko ditu, hala dagokionean eta arautegi aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan, Pentsio Planeko Partaidearentzako dokumentu bat, funtsezko datuekin osatua (merkatutzeko eta merkatutzaileei erraztasunak emateko, balizko partaideek produktu hauek dituzten ezaugarri eta arrisku garrantzitsuenen berri izan dezaten). Indarrean dagoen araudi aplikagarrian zehaztutakoak hartuko dira funtsezko datutzat.

Kontratazioa burutu baino lehen, merkatutzaileak Pentsio Planari buruzko informazioa eman behar dio Partaideari, baita beraren ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukerari buruzko informazioa ere. Xede horretan, merkatutzaileak balizko Partaideari emango dizkio arestian adierazitako funtsezko datuak jasotzen dituzten dokumentuak.

2. Partaidearen kontratazioa dagokion buletina harpidetuta egingo da; bertan Planera atxikitze baldintzak egongo dira islatuta arautegi aplikagarrian xedaturikoari jarraiki, eta, eranskin gisa, Partaidearentzako funtsezko datuak biltzen dituen dokumentuarekin batean. Atxikitze unean, honako dokumentazio hau emango zaio Partaideari:

- a) Atxikitze buletinaren kopia bat.

- b) Partaideak eskatuz gero, Pentsio Planeko partaide dela ziurtatzen duen agiria eta, hala behar badu, hasierako ekarpena egiaztatzeko ziurtagiria.
- c) Planari buruzko Espezifikazioen ale bat eta Pentsio Fondoaren inbertsio politikaren gaineko adierazpenarena, edo, bestela, agiriok non eta nola eskura ditzakeen jakinaraziko zaio.

Arautegi aplikagarrian aurreikusitako moduan emango dira aipatu dokumentu horiek guztiak.

3. Erakunde Kudeatzaileak honako hauen berri emango die Planeko Partaide eta Onuradunei, sei hilean behin:

- a) Planean dituen eskubide ekonomikoen bilakaeraren eta egoeraren gaineko argibideak.
- b) Partaide eta Onuradunengan eragina izan lezaketen beste alderdi batzuei buruzko informazioa, hala nola arautegietan, Planaren Zehaztapenetan, Fondoaren Funtzionamendu Arauetan edo inbertsio-politikan, eta kudeaketa- eta gordailu-komisioetan izandako aldaketei buruzkoa.
- c) Kanpoko finantza-berme bat dagoen kasuetan, haren epe-mugari buruzko informazioa eta data horretan bermatutako zenbatekoari buruzko informazioa, ongi ohartaraziz epe-muga iritsi baino lehen mobilizatu edo kobratu nahi izanez gero bermeak eraginik ez duela.
- d) Fondoko aktiboen bilakaera eta egoera, izandako kostuak eta lortutako errentagarritasuna eta Fondoaren gastu guztietatik Planari egotzi ahal zaion zatia jakinarazteko lapurpen-orria, hori guztia arautegi aplikagarrian aurreikusitako baldintzei jarraiki.

4. Hiru hilean behin txosten bat jarriko da Partaide eta Onuradunen eskura. Arestian aurreikusitako informazioaz gain, informazioak zehazten duen ekitaldiko datan metatutako errentagarritasunaren eta dagokion hiru hilekoan izandako errentagarritasunaren berri emango da txostenean. Hala eta guztiz ere, aipatu informazioa bidaliko zaie berriaz eskatzen duten Partaide eta Onuradunei.

Erakunde Kudeatzaileak, arautegi aplikagarrian zehaztutako baldintzetan, argitara emango du hiru hilean behin idatzi beharreko txostena.

Era berean, hiru hileko bakoitzaren itxieran, kudeatutako Pentsio Fondoaren inbertsio guztien zerrenda zehatza jarriko da Partaide eta Onuradunen eskuragarri. Eta aipatutako zerrenda bidaliko zaie berariaz eskatzen duten Partaide eta Onuradunei.

5. Urtero, Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzaileak honako informazio hauek jasotzen dituen ziurtagiria bidaliko dio Partaide bakoitzari:
 - a) Egutegiko aurreko urtean egindako ekarpenak eta urte horren amaieran beraren eskubide kontsolidatuek duten balioa.
 - b) Estalitako kontingentzien zehaztapenari, ekarpenen xedeari eta ekarpenen inguruko bateraezintasun araei buruzko laburpena.
 - c) Hala dagokionean, hautemandako ekarpen-soberakinen zenbatekoa, eta itzulketaren abonua egiteko modua jakinarazteko betebeharra.
6. Kontingentzia gertatu eta jakinarazi ondoren, Banakako Pentsio Planaren Onuradunak informazio egokia jaso beharko du alderdi hauei buruz: prestazioa eta atzera egiteko aukerak, kobrantza-moduak, halakorik bada, eta onuradunaren kontura dagoen arriskuaren edo bermearen maila.

Bidezkoa bada, dagokion erakundeak prestazioaren aseguru- edo berme-ziurtagiria egin eta Onuradunari emango dio, arautegi aplikagarrian zehaztutako edukiarekin.

Era berean, prestazioa jasotzeko eskubidearen onarpena Erakunde Kudeatzaileak sinatutako idazki baten bidez jakinaraziko zaio Onuradunari, legez ezarritako epearen barruan.

Partaideak eta Onuradunak noiznahi galdetu ahal izango diote Erakunde Kudeatzaileari edo Gordailuzainari beren eskubideen egoerari buruz.

13. ARTIKULUA. ESKUBIDEEN MOBILIZAZIOA

Partaidearen eskubide finkatuak, aplika daitekeen araudian eta Zehaztapen hauetan ezarritako baldintzetan, gizarte-aurreikuspeneko beste tresna batera edo batzuetara eraman

daitezke, guztiz edo partzialki, aplika daitekeen araudiak ezarritako baldintzen arabera. Mobilizazioa Partaidearen aldebakarreko erabakiz egingo da, eta zenbatekotik kendu ahal izango da mobilizazioak sortutako gastuen zenbatekoa. Ez da penalizaziorik aplikatuko mobilizazioagatik eskubide finkatueta.

Pentsio Planaren Onuradunen eskubide ekonomikoak ere gizarte-aurreikuspeneko beste tresna batera edo batzuetara mobilizatu ahal izango dira, arautegi aplikagarrian eta Zehaztapen hauetan xedatutako baldintzetan, betiere prestazioaren berme- eta segurantzak baldintzek horretarako aukera ematen baldin badute.

Onuradun bat mobilizatuz gero, dagokion prestazioa nola jasotzen ari den eta zer kontingentzia edo likidezia-egoerak sorrarazi dituen jakinarazi beharko da.

Eskubideen mobilizazioa burutzeko, berak izendatutako gizarte aurreikuspeneko tresnara transferitu behar ditu Partaideak aipatutako eskubideak, legeak ezarritako epearen barruan eta betiere Onuradunak indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete baldin baditu.

Erakunde Kudeatzaile hartzailearen egoitzan jasotzen den eguna hartuko da eskaera datatzat.

Mobilizazioak beste erakunde batek kudeatutako gizarte-aurreikuspeneko tresna bat badu xede, xede-erakunde horretara bideratu behar da eskaera, traspasoa abia dezan. Kasu horretan, Partaideak edo Onuradunak sinatutako mobilizazio-eskaerarekin batera, honako hau aurkeztu beharko da:

- Mobilizazioa zer Plan eta Fondotatik egiten den eta, hala behar bada, mobilizatu beharreko kopurua zenbatekoa den.
- Xedeko erakundeari baimena emateko eskaera, bere izenean jatorriko Erakunde Kudeatzaileari mobilizazioa eskatu ahal izan diezaion, eta hori guztia egin ahal izateko finantza eta zerga izaerako informazio guztia.
- Eskubideak Erakunde Kudeatzaile berak kudeatzen duen beste Plan batera mobilizatzen badira, mobilizatu nahi duen zenbatekoa eta, bidezkoa bada, xedeko gizarte aurreikuspeneko tresna adierazi beharko ditu Partaideak, baita kasu bakoitzean legez eska daitekeen informazio guztia ere.

Eskubide finkatuen edo ekonomikoen kobratze partzialak egiten direnean, eskaeran adierazi beharko da ea jaso nahi diren eskubideak 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren egindako ekarpenei dagozkien, horrelakorik egotekotan. Partaideak dagokion eskaeran horrelakorik adierazi ezean, mobilizatu beharreko eskubideak modu proportzionalan kalkulatu dira, ekarpenak, halakorik balego, data horren aurretik edo ondoren eginak diren kontuan hartuta.

14. ARTIKULUA. PARTAIDE ETA ONURADUNEN ALTAK ETA BAJAK

- 1) Borondatezkoa da Partaide edo Onuradun baten alta, eta beste izapiderik gabe egingo da atxikitzeke buletina bete eta dagokion ekarpena edo mobilizazioa egiten duen unean.

Honako hauen berri eman beharko du:

- a) Atxikitzeke buletina betetzeko behar diren datu pertsonalak.
- b) Nortasuna frogatzeko agiriak, hala nola nortasun agiria edo bizileku txartela.
- c) Erakunde Sustatzailean bere izenean duen kontuaren zenbakia.
- d) Ekarpeneren zenbatekoa eta ordaintzeko epea.
- e) Espezifikazio hauetan eta, hala dagokionean, arautegi aplikagarrian jasotako baldintzen konplimendua.

Partaide edo Onuraduna Sustatzailearen ardurapeko gizarte-aurreikuspeneko beste tresna batetik baldin badator, hasieran aurkeztutako datuek izango dute balioa, eguneraturik badaude, betiere.

- 2) Honako kasu hauetan gertatuko da Partaide edo Onuradun baten baja:
 - a) Partaide edo Onuradun delarik, bere eskubide guztiak gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera edo batzuetara mobilizatzen baditu, araudi aplikagarrian xedatutako baldintzei eta zehaztapenei lotutako baldintzetan.
 - b) Zehaztapan hauetan ezarritakoarekin bat etorrira, bere eskubideen zenbateko guztia eskuratzen duenean edo, errenta-plan baten titularra izanik, kontratatutako errenta

guztiak eskuratzen dituenen. Planaren ezein Partaide edo Onuraduni ezingo zaio baja eman, bertan eskubide guztiak eskuratzen amaitu ez duen arte.

c) Hilez gero.

Desegiteko edo amaitzeko arrazoietako edozein gertatzeagatik, Plana bertan behera utzi behar denean.

15. ARTIKULUA. PLANAREN AMAIERA ETA LIKIDAZIOA

1) Honako hauek izan daitezke Plana amaitzeko eta likidatzeko arrazoiak:

a) Plana atxikita dagoen Fondoa desegitea.

b) Helburua edo xedea desagertzea.

c) Legez xedatutako epean, Partaide eta onuradun guztiak iraungitzea, ez egotea edo desagertzea.

d) Gizarte aurreikuspeneko beste tresna batean sartzea, araudiak baimentzen duenaren barruan.

e) Sustatzaileak Plana desegiteko erabakia hartzea.

f) Bidezko azterlan teknikoaren arabera, jarraitzeko ageriko eta erabateko ezintasuna izatea edo, kasua bada, legez xedatutako gutxieneko kaudimen-marjina absolutua ez edukitzea.

g) Indarrean dagoen legediak xedatutakoak.

2) Likidazio-prozesuari ekitea erabaki ondoren eta prozesuak dirauen artean, Partaide eta Onuradunen eskubideak ezin izango dira gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera edo batzuetara aldatu, gainerako Partaide eta Onuradunen eskubideei kalterik ez eragiteko.

Likidazioa egiteko, une horretako likidazio-balioaren arabera kalkulatu zenbatetsiko dira Partaide eta Onuradun bakoitzaren partaidetzak, Plana amaitzeko eta likidatzeko eragiketak gauzatzeko eta beraiek aukeratutako gizarte aurreikuspeneko beste tresna batean edo batzuetan sartzeko egin beharreko gastuetarako zuzkidura kenduta.

16. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Plana behar bezala tratatu eta kudeatzeko, Erakunde Kudeatzailea izango da Partaideen eta Onuradunen datu pertsonalak bilduko dituen fitxategiaren titularra eta erantzulea. Atxikipen-buletinean horren berri emango zaie Partaideei eta Onuradunei, datu horien erabilera egokia eta konfidentziasuna babesteko beharrezkoak diren prozesu guztiak egiteko konpromisoa bere gain hartuz, eta guztiz errespetatuz une bakoitzean indarrean dagoen legeria eta dagokien eskubideak, hau da, sartzeko, aurka egiteko, zuzentzeko eta, kasua balitz, ezerezteko eskubideak.

Horrez gain, Planaren tratamendu eta kudeaketa egokia bermatzeko, ezinbestekoa izango da Partaideen eta Onuradunen datu pertsonalak Erakunde Gordailuzainari eta Erakunde Sustatzaileari jakinaraztea, horien eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten zereginak betetzeko, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden legeak une oro betez, betiere.

17. ARTIKULUA. PARTAIDEAREN DEFENDATZAILEA

Partaideek eta Onuradunek edo horien eskubidedunek Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzailearen, Erakunde Gordailuzainaren edo Sustatzailearen edo merkataturatzaileen kontra egiten dituzten erreklamazioak Partaidearen Defentsariari aurkeztuko zaizkio, erabaki dezan. Sustatzaileak hala erabakiz gero, Partaidearen Defentsaria Sustatzailearentzat berarentzat lan egiten duen Bezeroaren Defentsaria izan daiteke, Sustatzaileak arautegi aplikagarriari jarraituz izendatu baldin badu.

Erreklamazioak ebazteko epeak ezin du gainditu arautegi aplikagarrian aurreikusitako eperik luzeena.

Partaidearen defendatzaileak erreklamazioaren alde ebatziz gero, erabaki hori loteslea izango da aipatutako Erakundeentzat eta Sustatzailearentzat; hala ere, lotura hori ez da oztopo izango ez erabateko babes judizialerako, ez gatazkak konpontzeko edo arbitrajerako beste mekanismo batzuetara jotzeko, ez administrazioaren kontrol eta ikuskatze funtzioak erabiltzeko.

Partaidearen defendatzaileari lotutako gastuak ez dituzte, inola ere, bere gain hartuko Partaide edo Onuradun erreklamaziogileek, ezta Pentsio Plan edo Fondoak ere.

18. ARTIKULUA. PLANARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK ALDATZEA

Pentsio Planari buruzko Espezifikazioak Sustatzailearen erabakiz aldatu ahal izango dira, Sustatzaileak berak, Erakunde Kudeatzaileak edo Gordailuzainak, beranduenez ondorioak izan baino hilabete lehenago, Partaideei eta Onuradunei jakinarazi eta gero.

* * * * *